

**BASQUETOUR, TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
– AGENCIA VASCA DE TURISMO, S.A.**

**2015 EKITALDIKO GOBERNU KORPORATIBOAREN
TXOSTENA**

1. JABETZAREN EGITURA

1.1.- Sozietatearen kapitala

2015eko abenduaren 31n, honako hau da Sozietatearen kapitala:

Azken aldaketaren eguna	Sozietatearen kapitala (€)	Ekintza kopurua	Boto-eskubideen kopurua
2010-12-31	90.000	90	90

Akzioak izendunak dira, ehun eurokoa bakoitza, klase bakarrekoak dira eta erabat harpidetuta eta ordainduta daude.

1.2.- Partaidetzen zuzeneko titularrak, ekitaldiaren amaiera-egunean, honako hauek dira:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Zuzeneko boto-eskubideen kopurua	Gutzizko boto-eskubideen gaineko %-a
Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa	90	% 100

1.3.- 2015ean ez da akziodunen egituran aldaketarik izan.

1.4.- Sozietateak ez du akziorik autozorroan.

2. SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

2.1.- Estatutuetan aurreikusitako kontseilarien gehieneko eta gutxieneko kopurua honako hau da:

Gehieneko kontseilari kopurua	12
Gutxieneko kontseilari kopurua	3

Gaur egun 7 kontseilari daude, 4 emakume eta 3 gizon izanik.

2.2.- Honako hauek dira Administrazio Kontseiluko kideak:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Kontseiluan duen kargua	Izendapenaren eguna	Hautaketa-prozedura
Arantza Tapia Otaegui, And.	Presidentea	2013.02.06	Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 27/2007 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa
Itziar Epalza Urquiaga, And.	Presidenteordea	2013.02.06	
Mercedes Garmendia Bereciartu, And.	Bokala	2013.02.06	
Jon Andoni Zarate Zarraga, Jn.	Bokala	2013.02.06	
Javier Losa Ziganda, Jn.	Bokala	2013.02.06	
Consuelo Escabias García, And.	Bokala	2013.02.06	
Aitor Elizegi Alberdi, Jn.	Bokala	2013.02.06	

2.3.- 2015ean ez da Administrazio Kontseiluan ez da Kontseilaririk kargutik kendu.

2.4.- Kontseilarien izendapena, berritzapena eta kargu kentzea Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 27/2007 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera egin da.

2.5.- Dokumentu espezifiko bat egin da kontseilari berrien prestakuntzarako eta orientaziorako, eta dokumentu horretan honako alderdi hauek biltzen dira:

- a.- 159/2006 Dekretua, uztailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematen diona "BASQUETOUR" Turismoaren Euskal Agentzia - Agencia Vasca de Turismo, SA Sozietate Anonimo publikoaren partaidetzak sortzeko eta eskuratzeko.
- b.- Administrazio Kontseiluaren osaera
- c.- Sozietatearen estatutuak
- d.- Kontseiluaren araubidea
- e.- Gobernu Korporatiboaren Txostena.
- f.- Administrazio Kontseiluaren 2015eko urtarrila eta Abendua bitarteko aktak.

2.6.- Honako hauek dira Kontseilari exekutiboak:

Kontseilariaren izena	Haren izendapena proposatu duena	Betetzen duen kargua
Arantza Tapia Otaegui, And.	Administrazio Kontseilua	Presidentea
Itziar Epalza Urquiaga, And.	Administrazio Kontseilua	Presidenteordea

Kontseilari exekutiboen guztizko kopurua	2
Kontseiluaren guztizko %-a	% 28,6

2.7.- Honako hauek dira jabari-kontseilariak:

Kontseilariaren izena	Ordezkatzen duen edo haren izendapena proposatu duen akziodun esanguratsua izena
Arantza Tapia Otaegui, And.	Eusko Jaurlaritza
Itziar Epalza Urquiaga, And.	Eusko Jaurlaritza
Mercedes Garmendia Bereciartu, And.	Eusko Jaurlaritza
Jon Andoni Zarate Zarraga, Jn.	Eusko Jaurlaritza
Javier Losa Ziganda, Jn.	Eusko Jaurlaritza

Jabari-kontseilarien guztizko kopurua	5
Kontseiluaren guztizko %-a	% 71,4

2.8.- Kanpoko kontseilari independenteak* honako hauek dira:

Kontseilariaren izena	Profila
Consuelo Escabias García, And.	Enpresaburua
Aitor Elizegi Alberdi, Jn.	Enpresaburua

(*) Ondorio horietarako, honako hau hartzen da Kontseilari Independentetzat: bere baldintza pertsonalak eta profesionalak kontuan hartuta izendatu dena, eta bere eginkizunak bete ditzakeena, Sozietateak, sozietatearen akziodun esanguratsuak edo zuzendariek baldintzatu gabe.

Kontseilari independenteen guztizko kopurua	2
Kontseiluaren guztizko %-a	% 28,6

2015. urtean ez da aldaketarik izan kontseilarien tipologiari dagokionez.

2.9.- Administrazio Kontseiluak ez du kontseilari delegaturik izendatu.

2.10.- Ez da Administrazio Kontseiluaren Batzorderik ezarri.

2.11.- Sozietateak ez du araurik ezarri kontseilariak parte har dezaketen kontseiluen kopuruari buruz.

2.12.- Administrazio Kontseiluak enpresaren jarduerari buruz bere gain hartzen dituen erantzukizunak honako hauek dira batez ere:

- Urteko Kudeaketa Planaren onespena eta hori egikaritzeari buruzko ebaluazio partzialak.
- Sozietatearen Urteko Kontuak formulatzea.
- Laguntza-programak onartzea.
- Administrazio Kontseiluaren araubidea onartzea eta aldatzea.
- Goi-zuzendarien pizgarriak eta betetzen duten jardueraren onarpena eta ebaluazioa.

2.13.- Sozietatean Kontseiluaren Araubide bat dago, Administrazio Kontseiluko kide guztiek berretsi eta sinatu dutena, eta honako hauekin lotutako gaiak aintzat hartzen dituena:

- Kontseiluaren osaera.
- Kontseiluaren egitura.
- Kontseiluaren batzordeak.
- Kontseiluaren eginkizunak.
- Kontseiluaren funtzionamendua.
- Kontseilarien izendapena eta karguari uztea.
- Kontseilariaren betebeharrak (Kode Deontologikoa)/Interes Gatazka.
- Kontseilariaren eskubideak eta ahalmenak.
- Gobernu Korporatiboa.

2.14.- Martxoaren 30ean egindako Administrazio Kontseiluaren bileran Kontseiluaren Araubidearen “4. Interpretazioa”, “20. artikulua. Kontseilarien izendapena”, “24. artikulua. Kontseilariaren eginbide orokorrak” eta “30. artikulua. Kontseilariari lotutako pertsona” artikulua aldatzea eta berri bat, “31. Betebeharren irismena” gehitzea onartu zen.

Aldaketa hauekin argiago eta zehatzago gelditzen da zein pertsona fisiko eta entitate kontsideratu behar dira merkatal-sozietateen administratzaileei “lotutako pertsonak” eta eragiten dieten galarazpenak, eta era berean Araudia Kapital Sozietateen Legeari egokituta egon dadin, baita Estatuan zein Europa mailan onartzeko fase ezberdinetan dauden texto legegileetan gainditzen ari den joerarekin bat.

2.15.- Administrazio Kontseiluak Kontrataziorako Barne Arauak onartu ditu, barne-eremuan derrigorrez bete beharrekoak, eta arau horietan kontratatzeko prozedurak arautzen dira, eta publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatzen da.

2.16.- Administrazio Kontseilu bidez Kontratazioko Barne Batzordea eratu da, eta kontratazio guztien azterketa, gainbegirapena eta jarraipena egiteko ardura izango du. Batzorde hori osatzen dutenak honako hauek dira Itziar Epalza Urquiaga, And. (Presidentea), Arantza Madariaga Aberasturi, And. (Presidenteordea), Mercedes Garmendia Bereciartu, And. (Bokala) eta Jon Arrate Elorriaga, Jn. (Idazkaria, ez kidea).

2.17.- 2015ean ez zaie inolako ordainsaririk eman Administrazio Kontseiluko kideei.

2.18.- Administrazio Kontseiluaren akordioaren arabera, eta 130/1999 Dekretuaren arabera, otsailaren 23koa, Sozietatean dagoen zuzendari-kargu bakarra Zuzendari Nagusia da.

2.19.-. Ez dago sozietatearen goi-zuzendaritzako kideen aldeko (kontseilari exekutiboak barne) berme- edo blindatze-klausularik.

2.20.- Honako kasu hauetan daude dimititzera behartuta kontseilariak (Kontseiluaren Araubidearen 22. artikulua):

- *Izendatuak izan zireneko aldia igarotzen denean, edo legez eta estatutuz eman dizkioten eskumenez baliatuz Batzar Nagusiak erabakitzen duenean.*
- *Legez aurreikusitako bateraezintasuneko edo debekuko kasuren batean baldin badaude.*
- *Kontseilari gisa dituzten betebeharrak urratu badituzte.*
- *Kontseiluko kide izateak arriskuan jar ditzakeenean Sozietatearen interesak.*

2.21.- Botereak pertsona bakar batengan metatzeak ekar ditzakeen arriskuak mugatzeko hartu den neurria izan da botere mankomunatuak ematea presidenteari, presidenteordeari eta zuzendari nagusiarri 300.000 eurotik aurrera, batez ere ondasun higigarriak eta higiezinak erosteko, saltzeko, trukatzeko, kontratuak egilesteko, formalizatzeko, esleitzeko, luzatzeko, aldatzeko, berritzeko, suntsiarazteko eta deuseztatzeko, eta mailegu- edo kreditu-eragiketak sinatzeko eta formalizatzeko, eta edozein motatako fidantzak, abalak, bahiak, hipotekak eta abar eskatzeko, eratzeko, onartzeko eta ezeztatzeko.

2.22.- Ez dago kontseilari independenteei Kontseiluko deialdia eskatzeko edo kanpoko kontseilarien kezkak koordinatzeko eta horien berri emateko gai-zerrendan gai berriak sartzeko ahalmena ematen dien araurik.

2.23.- Ez da legezkoak ez diren gehiengo indarturik eskatzen ez ein erabakitan, eta erabakiak kontseilarien erdia gehi bateko quorumaren arabera hartzen dira.

2.24.- Kontseiluaren presidentek Sozietatearen Estatutuetan eta Kontseiluaren Araubidean ezarrita dituen eginkizunak, organo horren funtzionamenduari dagokionez, honako hauek dira:

- a.** Sozietatearen goi-zuzendaritza.
- b.** Kontseiluaren bilerak —ahalmen erabakigarria eta etengarria dutenak— deitzea eta horien buru izatea.
- c.** Kontseiluaren bileren gai-zerrenda egitea.
- d.** Ahaleginak egitea kontseiluko kide guztiak bileretara bertara daitezen; horretarako, deialdiak Araubide honetan ezarritako moduan eta epeetan bidaliko dira.
- e.** Kontseilariaren bat Kontseilura bertaratzen ez bada, kausak egiaztatu egin beharko dira baldin eta ez-bertaratze hori behin eta berriz gertatzen bada.

- f. Kontseiluaren eta Batzordearen erabakiak egikaritzea eta betearaztea.
- g. Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko ebaluazioa gainbegiratzea, eta, hala badagokio, ebaluazio horretatik eratortzen diren hobekuntza-proposamenak abian jartzea edo atzemandako gabeziak zuzentzea.

2.25.- Presidenteak kalitateko botoa izango du.

2.26- Kontseiluaren araubideak edo estatutuek ez diete adin-mugarik jartzen kontseilariei.

2.27- Kontseiluaren araubideak edo estatutuek ez dute agintaldi espezifiko mugaturik ezartzen kontseilari independenteentzat.

2.28.- Ez dago prozesu formalik botoak Administrazio Kontseiluan eskuordetzeko, nahiz eta idazki bidez emandako botoen eskuordetzeak soilik biltzen diren aktan.

2.29.- Administrazio Kontseilua bost aldiz bildu da 2015ean, Presidentea hirutan egon delarik.

2.30.- Kontseiluari aurkeztu zaizkion urteko kontuak formulatzeko, zuzendari nagusi Miren Arantza Madariaga andreak egiaztatu behar ditu aurretik

2.31.- Administrazio Kontseiluak ez du mekanismorik ezarri Kontseiluak formulatutako urteko kontuak Batzar Orokorrean aurkez daitezen saihesteko, auditoretza-txosteneko hainbat salbuespenekin

2.32.- Kontseiluaren idazkariak ez du kontseilari-mailarik.

2.33.- Kontseiluaren idazkariaren izendapena eta haren kargu-uztea Kontseiluaren osoko bilkurak onartuko du.

2.34.- Kontseiluaren idazkariari agindu zaio aktak egiteko eta sinatzeko, akten eta akziodunen liburuak zaintzeko eta hartutako erabakiak izapidetzeko prozeduren funtzionamendu-arauak eta prozedura horiek behar bezala garatzeko arauak modu egokian aplikatzen direla zaintzeko eginkizuna, instrukzio bat eratu delarik, Sozietatearen kalitate sisteman barneratua, idazkariak ekintzei dagozkien arauak eta prozedimenduak aplikatzen dituela kontrolatzen eta gainbegiratzen delarik.

2.35.- 2015 ekitaldiko Urteko Kontuen auditoretza-txostenarengatik eta beste zerbitzu batzuegatik Attest, S.L. jasandako ordainsariak 26.174 euro izan dira (17.200 Kudeaketa sistema baten software lizentzia eta lizentziengatik, 4.800 ESKaren inplantaziorako aholkularitza eta 4.174 2014 ekitaldiko kontuen ikuskaritzagatik).

2.36.- 2015 ekitaldiko Urteko Kontuen auditoretza-txostenak ez du erreserbarik edo salbuespenik.

2.37.- Egungo auditoretza-enpresak seigarren urtez egin du sozietatearen urteko kontuen auditoretza, hau da, enpresa horrek auditatutako urte kopuruaren % 66.66a, urteko kontuak auditatu diren guztizko urteen kopuruaren gain

2.38.- Kontseilariak, beren eginkizunak betetzen lagun diezaieten, kontrata ditzakete edo eska dezakete bileretara joatea, kasuan kasu, legezko, kontabilitateko edo finantza-arloko

aholkulariak edo bestelako adituak. Kargua betetzerakoan izan dituen nolabaiteko garrantziko eta konplexutasuneko arazoei buruzkoa izan behar du enkarguak.

Kontratatzeko erabakia Kontseiluaren presidenteari jakinarazi behar zaio eta debekatu ahal izango da, baldin eta honako hau egiaztatzen bada:

- a. Ez dela beharrezkoa agindutako eginkizunak behar bezala betetzeko.
- b. Daukan kostua ez dela arrazoizkoa arazoak duen garrantzia aintzat hartzen badugu.
- c. Eskatutako laguntza teknikoa Sozietateko adituek eta teknikoek modu egokian eman dezaketela.

2.39.- Kontseilariak administrazio-organoen bilerak prestatzeko behar duten informazioa behar den denboraz eduki ahal izateko, deialdia egutegiko hamar eguneko gutxieneko aurrerapenarekin bidaliko da gutun bidez gauzatzen bada, edo egutegiko zazpi eguneko aurrerapenarekin posta elektronikoko bidez gauzatzen bada, kontseilari bakoitzak helburu horretarako emandako helbidera, eta bileraren gai-zerrenda ez ezik dagokion informazioa ere jarri beharko dira beti deialdi horretan.

2.40.- Kontseiluaren deialdian gai-zerrenda garatzeko behar den gutxi gorabeherako denboraren berri ematen zaie kontseiluko kide guztiei, eta puntu espezifiko bat ezartzen da galde-eskeak egiteko.

2.41.- 2015eko Administrazio Kontseiluaren bileretara deialdia bataz beste 9 egunetako aurrerapenaz egin da.

2.42.- Enpresak Administrazio Kontseiluko kideei bere jarduerari buruz informazioa modu jarraituan emateko sistema bat garatu du; horretarako, Administrazio Kontseiluaren bileretako Gai Zerrendan puntu espezifiko bat txertatzen da, eta puntu horretan jarduerari buruzko informazioa ematen da.

2.43.- Administrazio Kontseiluaren Arautegian Kode Deontologiko bat gehitu da, irizpide etikoak eta jokabideari buruzko irizpideak biltzen dituena, eta kontseiluko kide guztiek derrigorrez aplikatu behar dutena. Araubide horretan, zehazki, etikoki onargarriak diren erabakiak hartzeko irizpideak, gerta daitezkeen kontseilariaren interes-gatazkak, gatazka horiek konpontzeko bideak eta abar ezarri dira. Araubide horrek, bestalde, honako kapitulu hauek ditu:

- Jokabide-irizpideak
- Kontseilariaren betebeharrak orokorrak
- Konfidentziasun-betebeharra
- Gardentasun- eta informazio-betebeharra
- Interes-gatazka
- Sozietatearen izena erabiltzea
- Publikoa ez den informazioa
- Lotura duen pertsona

2.44.- Administrazio Kontseiluko kide bakar batek ere ez dio sozietateari jakinarazi prozesatua

izan dela edo kide horren aurkako ahozko judizioari hasiera emateko autoa eman dela Kapital Sozietateen Legearen 213. artikuluan aipatzen den delituren batengatik.

2.45.- Administrazio Kontseiluaren bileren ebaluazioa egiten da urtero; horretarako, inkesta bat egiten da eta inkesta horretan bilera-egunen, deialdien, Gai Zerrendako gaii buruzko informazioaren, informazio-eskabideak egitean jasotako arretaren eta abarren gaineko eremuak biltzen dira.

3. LOTUTAKO ERAGIKETAK

3.1.- Sozietateak lotutako erakundeekin dituen eragiketa eta saldo nagusiak Eusko Jaurlaritzatik jasotako kapitalaren eta ustiapenaren diru-laguntzak dira.

2015eko abenduaren 31n, “Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk-Salmenta eta zerbitzugintzagatiko bezeroak” epigrafean Eusko Jaurlaritzatik kobratu behar den zenbateko bati dagokio, jasotako zerbitzu batzuen ondoriozkoa.

2015ean, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzetaz gain, alderdi lotuekiko eragiketen erlazioa hurrengoa da:

	Euro
	<u>Zerbitzu-emateak</u>
Taldeko enpresak	
Eusko Jaurlaritza	30.000
UR Agentzia	6.000
	<u>36.000</u>

3.2.- 2015 ekitaldian Sozietateak galdu-irabazia kontuaren “Pertsonal-Gastuak” epigrafean 67.087 euro egotzi dira 67.087 euro 2014 ekitaldian), sortzapenduko ordainsari bezala goi zuzendaritzaren soldataren kontzeptuan. Sozietatearen administratzaileei ez zaie aurrerapenik edo krediturik eman eta administratzaile horiek ez dute beren gain betebeharririk hartu berme gisa. Era berean, Sozietateak ez du Administratzaileekiko betebeharririk pentsioen eta bizi-aseguruen arloan.

3.3.- Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 229.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2015 ekitaldiko Sozietatearen Administratzaileek adierazi dute ez dagoela Sozietatearen interesarekiko zuzeneko edo zeharkako gatazka-egoerarik.

3.4.- Administrazio Kontseiluko kideek ez dute interes-gatazkako egoerarik izan ekitaldi osoan, Kapital Sozietateen Legearen 227., 228., 229. eta 231. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Gai horri dagokionez, Administrazio Kontseiluaren Araubidean honako hau ezartzen da:

Kontseilariak beraren eta lotura duen pertsonen eta Sozietatearen arteko interes-gatazkako egoerak saihestu behar ditu, eta egoera horiek saihestezinak badira, horren berri eman beharko dio Administrazio Kontseiluari. Bereziki:

- *Kontseilariak ez du lagundu behar eta ez du esku hartu behar kontseilaria bera zuzenean edo zeharka sartuta dagoen gaiei eragiten dieten erabakietan.*
- *Kontseilariak ezin du zerbitzu profesionalak edo merkataritza-arloko zerbitzuak emateko transakziorik egin zuzenean edo zeharka Sozietatearekin, salbu eta interes-gatazkako egoeraren berri aurretik ematen bada eta Kontseiluak transakzioa onartzen badu.*
- *Kontseilariak ezin du bere mesederako edo berari lotutako pertsonen mesederako erabili Sozietatearen negozio-aukera bat, betiere Kontseilariak bere kargua betetzearekin lotuta edo Sozietatearen bitartekoak eta informazioa erabiliz sortu edo azaldu den merkataritza-inbertsioa edo -eragiketa egiteko aukera hartuta horrelakotzat.*

Kontseilariak Sozietatearekin duten leialtasuna dela medio presidenteari jakinarazi beharko diote edozein abusuren edo ez-betetzereen berri dutenean, bereziki informazio garrantzitsua eta pribilegiatua erabiltzeari buruzkoa bada.

4. ARRISKUEN KONTROLA

Sozietatearen finantza-arriskuen kudeaketa Sozietatearen Zuzendaritzan zentralizatuta dago. Zuzendaritza horrek ezarrita dauzka interes-tasen aldaketetarako eta aldaketa moten nahiz kreditu- eta likidezia-arriskueterako esposizioa kontrolatzeko beharrezkoak diren tresnak. Ondoren, Sozietatean eragina duten finantza-arrisku nagusiak adierazten dira:

4.1.- Kreditu-arriskua:

Sozietatearen finantza-aktibo nagusiak kutzako saldoak eta eskudirua eta kobratu beharreko bestelako kontuak dira, finantza-aktiboek dagokienez Sozietatearen kreditu-arriskurako esposizio handiena dutenak.

Sozietatearen kreditu-arriskua bere merkataritza-zorrei egotz dakieke batez ere.

Bestalde, kreditu-maila handiko finantza-erakundeetan dauka Sozietateak bere diruzaintza.

4.2.- Likidezia-arriskua:

Sozietateak dagoeneko konprometituta dituen ordainketei eta/edo inbertsio berrietatik eratorritako konpromisoei aurre egiteko duen balizko gaitasunaren arriskua da.

Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueratik eratortzen diren ordainketa-konpromiso guztiei aurre egiteko, Sozietateak bere balantzea erakusten duen diruzaintza dauka.

Likidezia-erreserbaren aurreikuspenen etengabeko jarraipena egiten du Zuzendaritzak (kredituaren erabilgarritasunak eta eskudirua biltzen ditu) espero diren eskudiru-fluxuen arabera.

4.3.- Merkatu-arriskua

Arrisku horretan interes-tasaren arriskua, aldaketa motaren arriskua eta prezioaren bestelako arriskuak biltzen dira.

Sozietatearen diruzaintza interes-tasaren arriskuaren esposiziopean dago, eta arrisku horrek aurkako eragina izan dezake finantza-emaizetan eta kutzako fluxuetan.

4.4.- Administrazio Kontseiluaren Letradu Aholkularia izendatu da Kontseiluan hartzen diren erabakien baliozkotasun juridikoa gainbegiratzeko mekanismo gisa.

4.5- Administrazio Kontseiluko kide guztiak erantzukizun zibileko estaldura-asegurua Sociedad para la Transformación Competitiva - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea S.A.ren polizan bilduta daude, Kontseiluko kideen erantzukizun-erregimena aplikatzearen arabera sor daitekeen edozein gatazkaren aurrean legezko estaldura emateko mekanismo gisa.

5. BATZAR NAGUSIA

5.1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilua, bazkide bakar gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion eskubideak betez, Sozietatearen Batzar Nagusi gisa eratu da.

5.2.- Txosten honetan aipatzen den ekitaldian egindako Batzar Nagusietan honako erabaki hauek hartu ziren:

2015eko maiatzaren 26an egindako Batzarra

1. *Sozietatearen Administrazio Kontseiluak proposatuta, urteko kontuak, 2014ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, onartzea.*
2. *Sozietatearen Administrazio Kontseiluak proposatuta, 2014eko ekitaldiari dagokion kudeaketa-txostena onartzea.*
3. *Sozietatearen Administrazio Kontseiluak proposatuta, 2014eko ekitaldiko galera (8.178 euro) "Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak" kontuari aplikatzea onartzea.*

AZKEN OHARRA

Helbidea eta Kontseiluaren Araubidearen eta Gobernu korporatiboaren edukia honako web-orri honetan zuzenean sartuz lor daitezke: www.basquetour.net.